

Erref. kodea: LAF-218-190 [17]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak: Davant,

Jean Louis: Zertan da Eskual-Herriko jendetza

## ZERTAN DA IPHAR ESKUAL-HERRIKO JENDETZEA ?

Azken "recensements" delako jende kondatzeen xifreak ikertuz, lau gauzeri chartzen gira :

- 1/Iphar Eskual-Herriko jendetzea emendatzen ari dela.
- 2/Kanpafian jendea gutitzea.
- 3/Kanpafian zahar gehiago eta haur gutiago, jende arau.
- 4/Eskualde batzu hustuz eta besteak emendatuz, Iphar Eskual-Herria bi zatitan moztuz.

### 1/Iphar Eskual-Herriko jendetzea emendatzen.

1954-eko eta 1962-eko kondatzeen atean, beraz zortzi urtez, Lapurdi, Baxe-Nabarre ta Xuberoko jendetzea 13.500 arimaz emendatu da. Aitzinamendu hori konpara dezagun beste eskualde batzuk egin dutenari :

	<u>1954</u>	<u>1962</u>	<u>Ehuneko zer jauzi</u>
-Eskual-Herrian	193.925	207.406	+7 %
-Biarnon	226.094	262.049	+15 %
-Departamenduan	420.019	469.455	+11,8 %
-Frantzian			+8 %
-Akitanian			+4,5 %

Iphar Eskual-Herriak irabazi dituen 13.500 arima horietan, Aljeriatik jin diren 2.725 Frantses badira. Departamendu guzian 10.000 dira, parterik handiena PAU-eko eskualdean (6.600) eta heietarik 3.250 MOURENIX-en, ainitzak bizipiderik gabe.

Dena den, iphar Eskual-Herriko jendetzea polliki emendatzen ari da, baina toki batzuetan bakarrik, ezen kanpafian herri gehixenak jendez gutitu dira.

### 2/Kanpafian jendea gutitzen

Hemen, Eskual-Herriko xifreak ez ditut, baina bai departamendu osokoak, Biarno barne. 1900 urtean, hiritar batentzat hiru kanpafiar baziren; 1925-ian, batentzat biga; 1955-ian, batentzat bako. Hona 1962-eko kondatzeak zer dakarken :

- Hiritarrak	250.188,	beraz 53,3 %
- Kanpafiarak	219.267	46,7 %

Gerostik, hiriak oraino aberastu dira, bereziki Algeriako Frantsesen etortzeareki, zeren hirietan kokatu dira gehixenak. Departamenduko bizizaleetan, ehunetarik 55-ak hirian bizi dira; Frantzia guzian 61,7%; Akitanian 47,8%. Oraiko moldean jarraituz, huna zertan izanen giren 1980-an :

- Hiritarrak	300.000,	beraz 60 %
- Kanpafiarak	200.000	40 %

Kanpafian jendeak ez dira denak laborantzatik bizi, hala nola Hazparneko zapatainak eta Xuberoko espartiferoak. Laborariak bakarrik kondatuz, lotsagarria lizateke kanpafian jendetzearen gutitzea. 1955-ian, 32.000 etxalde baziren departamenduan 30.000; hamar bat urtez, 25.000-etara jaitsiko dira. Beraz, denbora berean, 5.000 Familiak laborantza utziko dute, segurrenik ere kanpafia eta behar bada departamendua laborariak orai 75.000 izaki eta, 50.000 geldituko dira. Beraz laborantzatik kanpo kokatu beharko dute 25.000 jendeak, eta gainerat geldituko diren laborarien haurretarik gehixenek, zeren etxalde on batean ere, bat da gelditzen. Eskual-Herriatik bakarrik ondoko 3 urte horietan, norapait joan beharko dute 3.500 bizizaleak.

Iphar Eskual-Herriko jendetzearen emendatzeak zer erran nahi du beraz? Hemengo gazteak lanketa kanporat doatzilarik, arrotzak hemen kokatzerat heldu zaizkigu. Eskualdun gazte gehixenek beren besoeri esker bizi behar dute, eta heientzat hemen ez aski lantegirik. Aldiz hunarat etortzen diren kanpotiarrak jakitatez edo diruz aberats heldu dira : hortakotz dira leku onetan edo ontasunen jabe sartzen.

3/Kanpañan zahar gehiago eta haur gutxiago, jende arau.

Kanporat joaile gehixenak gazteak dira. Departamendu huntako laborarien erdiek bederen 65 urtez goiti badituzte. Alde hortarik, zoritxarrez, Frantziako lehenetarik da departamendua. Gazte gutiago, sortze gutiago, hiltze gehiago. Huna 1957-eko xifre batzu :

-sortze :	Frantzia : 18,4%	B.P. : 16,6%
-hiltze :	" 11,9%	" 12,6%
-sortzeen eta hiltzeen arteko diferentzia :	" 6,5%	" 4 %

Sortzeak oraino gutitzen ditu beste arrazoin batek: eskondu gabe gelditzen dira mutil asko, zeren kanpañan neska guti dira gelditzen.

4/Eskualde batzu hustuz, besteak emendatuz, iphar Eskual-Herria bi zatitan moztua da. Baionatik Hendaira, laster Kosta guzia hiri bakar bat dateke. Oraidanik hor bizi dira 138.000 jende, beraz iphar Eskual-Herriko bizizaleetan hiruetarik biga. Zortzi urtez jendetzea 13.500 arimaz aberastu bada, 16.600 beretu ditu Kostak, Aljeriako Frantsesak barne, ta 3.000 galdu Eskual-Herri barneak. 15 kantonamenduetarik, 5 emendatu dira: Baionako biga, Biarritzekoa, Donibane-Lohitzunekoa, Uztaritzekoa; aldiz, azken urte horietan ber heina atxikitzen dute Maulekoak eta Ezpeletakoak. Beste guziak gibel ari dira.

5/Zergatik kanpaña husten ari ?

Oraiko tresnari esker, lehen baino beso gutiagorekin egiten dira lanak eta laborantzak ez dezazke bere haur guziak haz. Laborantziatik kanpo, Eskual-Herri huntan aski bizipiderik ez da. Herri gehixenak arras ttipiak dira eta nekez kausi ditazke behar diren aitzindariak eta dirua, bereziki etxe gehixenak elgarri hurrun direkarik; bideen egitea, urraren eta eletrikaren ezartzea, hirietan baino karioago dira; herriko eta beren arteko aferen antolatzeke, jendeek ez dute aski usus elgar ikusten, denbora galtze handiak dira bideetan; gazte ainitzek kanpañako bakartasuna ez dute onartzen, etc... Beraz herri xumeak beheiti doatzi, eta 5 milae goitikoak emendatzen dira.

6/Zer egin dezakegu ?

Lehenik gauzak diren bezala ikus. Batzuk ez dute gazteen erranez axolarik. Bainan xifreak hor ditugu, gobernuko gizonen 1962-eko jende kondatzean jarriak. Itsu ez denak ikus dezazke ta elkor ez denak entzun.

Bigarrenik, ez erran oraiko denborak hola nahi duela, ez dela deus egitekorik. Segurki, laborarien nonbrea ttipituz joanen da. Bainan ez da arrazoin bat kanpañen burrustan husterat uzteko; laborariak merexi duten bezala lagunduak balin badira, beren etxaldean goititzeko eta familien hobeki altxatzeko, ez dira trumilka hirirat joanen eta bakarrik dira hustuko etxalde nekezenak.

Hirugarrenik, Eskualdun gazte guziek ofizio bat ikasi behar dute : hortarako ikasgiak badira, bai 14 urteetakoentzat, bai gehituagoentzat. Beraz, ez litake haizu izan behar ofizio bat eskuetan edo kaskoan izan gabe Ameriketarat edo hirietarat joaitea.

Laugarrenik, lantegi berriak behar gintuzke, Maulen eta Hazparnen bereziki, ez herri horien Españolez kokatzeko, berriki errana izan den bezala, baina Eskualdun gazteen herrian atxikitzeko. Hazparnen berean, 1931 eta 1940 urteen artean sortu diren 790 gazteetarik, 440 herritik kanpo bizi dira. Halere badira jendeak, lantegi berririk alpatzea ere ez baitute nahi, langileak sobera pagatuak izanen direlakoan. Eskual-Herri barneko toki batean, jaun batzuk lantegi berri bateko nausiarri erran diote langileak sobera pagatzen dituela eta gogotik haizatuko zituzten horren laguntzale batzu, baizik eta ere "Españolak" ditela. Alta Eskualdunak dira, Españolak ez izan nahiz bestaldetik etorriak. Aise ikusten da horien lanak ez duela onik baizik ekartzen herriko langile batzuekiko. Aise ikus/ ditake ere bestaldeko Eskuldunen laguntzarekin, heien diruari eta jakitateari esker, zer lanak egin ditazken hunaindik Eskual-Herrian, hemengo jendeen onetan. Baina hori ez dezakete jasan jendea beren meneko atxiki nahi dutenek. Alta goiz edo berant onartu beharko dute, gazteak ez baitira lehenekoak bezala erabiliak izan nahi.

Bostgarrenik, turizmak oraino ez duen hedadura bat hartu behar du Eskual-Herri barnean, udatiar guziak ez baititazke itsas basterrian edo Garazin koka. Hazparneko eta Xuberoko eskualdeetan poliki sartzen hasiak dira. Haatik, bada lan egiteko bideen, urraren eta egoitzen emendatzeko.

Azkenekotz, herri ttipiek merexi lukete hobeki arthatuak izatea Gobernuaren aldetik, baina hortarako multxoka bildu behar lukete, zindikat edo "district" deitu batasun batzuetan. Herri ttipi batek ez dezake lan handirik egin. Baina batek bakarrik ez dezakeena, bospaseiek elgarrekin obra dezakete.

Jean-Louis DAVANT.



